

# AIARALDEA *hemen*



Jon Catalan

AIARALDEA  
**KORRIKAREN  
ZAIN**

# elkarritzeta

## “Ez genuke imaginatuko Euskal Herria Korrikarik gabe”

**ASIER AMONDO** (Laudio, 1969) KORRIKAREN ARDURADUNA DA. FUNTZIO HORI BETETZEN DUEN HIRUGARREN ALDIA IZANGO DA AURTENGOA. EUSKARAREN ALDEKO EKIMEN IBILTARIAREN HASIERAREN BEZPERAN BILDU GARA BERAREKIN.



Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

### Zenbat elkarritzeta egin dituzu dagoeneko?

Nik uste 40 inguru egin ditugula, markak hautsi ditugu, eta oraindik baditugu batzuk egiteke. Korrika baino lehen gauzatu ditugu gehienak, baina ekimenak iraun bitartean ere izango dugu baten bat, eta amaitzen denean ere.

### Bihar hasiko da Korrika. Koordinatzailea izanik, urduri al zaude?

Etxekolanak eginda ditugu, azken zertzeladak falta zaizkigu. Pozik gaude, uste dugu koska bat gorago egingu duela Korrikak, potentia izango da.

### Koska bat gorago helduko dela Korrika diozu. Zer ba?

Kualitatiboki eta kuantitatiboki Klikak planteatu ditugu, eragileek euskararen aldeko konpromisoak hartzeko.

Eragile batzuk guregana etorri dira, beste batzuegana gu joan gara. Konfort esparrua zabaldu nahi genuen eragile gehiagorengana heltzeko; eta lortu egin dugu.

### Bi urtetan gauza asko gertatu dira Euskalgintzan, euskaraldia kasu.

Euskalgintzako eta Administrazioetako eragileak Santiago Zubian elkarrekin hasi ginen lantzen. Euskaraldian 240.000 lagunek eman zuten izena, parte hartze handia da hori. Korrikarekin olatu hori aprobetxatu nahi dugu eten ez dadin. Konpromisoak eskatu ditugu euskara ikasi eta hitz egiteko. Administrazioek ere badute ardurak: hizkuntza politikaren normakuntzan lanean ari diren guztiek erantzukizun handia dute denok bide beretik aurrerantza jarrai dezagun. Euskararen bidean arraunean norabide berean joan behar dugu enpresa eta erakundeek, bakoitzak bere berezitasunekin.

**Korrika garrantzitsua da, beraz.**

Korrikak zenbait konpromiso eskatu ditu. Eragileek biluztu egin beharko dute euskararen inguruan zein aurrerapauso emango dituzten esateko. Ondoren etorriko dira balorazioak. Tartean, gainera, beste Euskaraldi bat egongo da.

### Korrikak dirauen bitartean, zein izango da zure egitekoea?

Nire lan nagusia bukatua dago. Furgonetakoek kontrolatuko dute Korrika 11 egunetan. Nik, nagusiki, harreman eta bulego lanak gauzatu beharko ditut. Apirilaren 4an lasaitasun pittin bat hartuko dut, ekimena jada ez delako nire esku egongo. Hala ere, egunero hitz egiten dugu 3-4 aldiz furgonetakoekin, gorabeherak komentatzeko. Esperientzia handia dute, horregatik sentsazioak eta datuak eskatzen dizkiegu.

**Korrikaren abestiak polemika piztu du batzuen artean. Espero al zenuten?**

## elkarrizketa



**“Uste dugu aurten koska bat gorago egingo duela Korrikak, potentea izango da”**

Nik zeresana emango zuela aurreikusten nuen. Abestia gustatu ahal zaizu, edo ez. Euskal musika euskaraz egiten den guztia da, eta euskarak ere estilo guztietatik edan du historian zehar. Euskara munduan bizi da, munduarentzat bizi da, euskaraz edozein gauza egin daiteke. Abestiagatik kritikak entzun ditugu, baina baita txaloak ere: abesti ezberdin bat sortzera ausartu gara. Pozik gaude kantarekin, kultur produktu batez 15 egunetan hitz egitea Euskal Herrian ez delako inoiz gertatu.

**Nazio arduradun moduan zenbatgarren Korrika daramazu?**

Hirugarrena. Lau ediziotarako konpromisoa hartu nuen. Oso polita da, baina oso gogorra ere bai. 15. Korrikatik Nazio Batzordeko kidea izan naiz, orduan banekien zertaz ari ginen. Bi urteko prozesu luzea da Korrika. Apirilaren 14an amaituko dugu, eta ekainean erabakiko dugu non hasi eta bukatuko den hurrengo edizioa. Urrian, berriz, mezua eta omendua lantzeari ekingo diogu;

martxoko batzarrean AEKk ibilbideari, zirriborroari eta omenduari onarpena emateko. 2020ko martxotik aurrera, orde, korrika kulturala, kanta, unitate didaktikoa...

**Aurten Korrika ez da Okondo eta Orozkotik igaroko. Zer dela eta?**

Mundu guztiak nahi du Korrika bere herritik pasatzea, baina ez da posible. Eskualde eta herrialdeka kilometro kuotak jarrita ditugu. Horren arabera erabakitzen dugu. Aurten Errioxatik pasako gara, iaz ez bezala; ondorioz, kilometro gutxiago izango ditu Aiarak.

**“Aurten Errioxatik pasako gara, iaz ez bezala; ondorioz, kilometro gutxiago izango ditu Aiarak”**

**Zuretzat zerk egiten du Korrika berezi?**

Faktore ezberdinak daude. Mezua 5 hilabeteetan lantzen da. Badu ibilbide bat, Euskal Herri osoa zeharkatzen duena. Lekukoa eskuz esku pasako da, mezu sekretu batekin (6 pertsonak salbu). Mezuak 2.500 kilometro egingo ditu Gasteiza iritsi arte: bertan jarriko dugu jende guztiaren esku. Horrez gain momentu magikoak daude: gaua, hotza, euria...

**“Aurreikusten nuen kantak zeresana emango zuela”**

Korrika berdina izan arren, beti da ezberdina. Laudion, Amurrión, Aiaran edo Urduñan ordutegia beti da ezberdina, leloa, omendua eta ibilbidea bezala. Gaur egun ez genuke imajinatuko Euskal Herria Korrikarik gabe.

**2017ko Korrikak marka guztiak hautsi zituen Laudion. Aurten ere horren harrera beroa egotea espero duzu?**

Laudion jendetza egon zen Dolumin Barikua zelako. Korrikak babesa eta jendea behar ditu. Aurreko edizioan toki batean egon zirenak, beste nonbaiten hartuko dute aurten.

# korrika txikiak

Urduñan, Okondon eta Amurrion izango dira eskoletako Korrika Txikiak. Aiaraldeko gainontzeko herrietan 21. Korrikarekin bat egingo dute hezkuntza zentroek,

apirilaren 10 eta 11n. Korrika Kulturalaren baitan ere jarduera ugari antolatu dituzte umeentzat eskualdeko hainbat tokitan.

## Eskualdeko haurrek nola parte hartu lezakete 21. Korrikan?



Okondo, Urduña, Orozko eta Okondon egingo dituzte aurten Korrika Txikiak, apirilaren 12an. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Korrika nagusian ez ezik, nola hartu ahalko dute parte umeek ekimenean? Korrika Txikiak izaten dira ume eta guraso andana elkartzeko hitzorduetako bat. Aurrez, baina, haurrentzat emandakia ere izango dira eskualdeko zenbait tokitan.

Gainera, AEK-ikastetxeetarako unitate didaktikoa prestatu du, eta bateko zein besteko, dinamikaren baitan murgilduta daude bailarako eskola gehienak.

Alabaina, aldarri eta gozamenarako apirilaren 12an antolatu dituzte Korrika Txiki guztiak eskolek eta Guraso Elkarteek. Okondo ere batuko da dinami-

kara, nahiz eta Korrika "nagusia" bertatik ez igaro. Laudion 8:30 inguruan pasako da herritik Korrika nagusia, eta horrenbestez, ikastetxe guztiek bertan hartuko dute parte, kilometro propioa erositara. "Ondorioz, ez da Korrika Txikirik egingo".

Hala baieztatu du Bego Jimenez Laudio AEAko kideak. Ez da kasu bera gertatuko Urduñan eta Amurrion, ostirala aprobetxatuko dute haurren ekimena gauzatzeko.

### Korrika Txikiak herrika

Honakoak izango dira eskualdeko Korrika Txikien hitzorduak eta abiapuntuak. Okondokoa 16:00etan abiatuko da eskolatik, Orozkokoa 11:00etan eskolatik,

## Aiaraldeko herri gehienetan ez dute Korrika Txikirik antolatuko, ikastetxeek 21. Korrikarekin bat egingo dutelako

Urduñakoa 15:00etan Herri Ikastetxetik eta Amurriokoa 16:15ean gasolindegiz zaharretik. Ohi bezala, Aiaraldea hedabideak jarraipen berezia egingo du.

### Haurrentzat ikuskizunak

Bestalde, Korrika kulturalaren baitan umei zuzendutako zenbait ekintza egongo dira. Amurrio Antzokian, esaterako, Araba Euskarazekin elkarlanean *Kolore anitzak* ipuin kontaketa musikatua egongo da apirilaren 7an, 17:00etan. Aiaraldea hedabideak, gainera, bi lagunentzat sarrera bikoitza zozketatuko du.

Apirilaren 10ean, berriz, Patxin eta Potxin pailazoaren emanaldia egongo da Laudion, eta Arrankudiagan txokolate jana zein zurez-

ko plaza jolasak. Gasteizko amaiera festan ere egitarau zabala egongo da haurrentzat, apirilaren 14an.

## ORDUTEGIAK

**OROZKO**  
11:00etan eskolatik

**URDUÑA**  
15:00etan Herri Eskolatik

**OKONDO**  
16:00etan parketik

**AMURRIO**  
16:15ean gasolindegiz zaharretik

**APIRILAREN 12AN**  
IZANGO DIRA LAU ZITAK

## URDUÑA

## Urduñatik sartuko da Korrika Aiaraldera, Barrerillatik

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Urduña izango da Korrikak bisitatuko duen Aiaraldeko lehen herria. Apirilaren 10ean iritsiko da euskararen aldeko ekimen ibiltaria Bizkaiko hiri bakarrena, 05:36ak aldera. Izarrako bide-tik (Barrerillatik) sartuko da eta sei kilometroko bidea egingo du, 6:05ak arte.

**Egitarau oparoa**

Korrika igaro ostean herri gosariaz gozatzeko aukera egongo da, Urduñako Gazte Asanbladaren eskutik. Hori ez da izango, baina, hirian egongo den egitasmo bakarra. Korrika kultural oparo eta anitza antolatu dute herritarrek datozen egunetarako. Alde batetik, Korrikariburuzko erakusketa egongo da ikusgai Alondegian, apirilaren 14ra arte. Datorren asteburuan

(hilak 6 eta 7), aldiz, material salmenta egongo da Foru plazan, goizean zehar.

Igandean kirolak ere hartuko du protagonismoa, Txarrazo mendi taldeak ibilaldia egingo baitu. 10:30ean abiatuko dira Foru plazatik.

Apirilaren 13ko goizean, berriaz, "Izerdi patxetan euskaraz" kirol ekimena egingo dute.

**Korrika txikia**

Baina ekimen bereziena apirilaren 12an izango da: Korrika txikia. Urduñako bi eskolen artean (Antzinako Andra Mari eta Herri Ikastetxea) antolatzen dute ekimena hiriko kaleetan barrena, klasean Korrikari buruzko hainbat gauza landu eta gero. "Oso ekintza motibagarria da umeentzat, batzuetan gehiago eskatzen dute", adierazi du Mariabi Albizua Manrique Herri Ikastetxeko irakasleak.

## KORRIKA KULTURALA

**04.01-04.14**URDUÑA  
**ERAKUSKETA**  
Alondegia**04.06-04.07**  
**Larunbat eta igandea**URDUÑA  
**MATERIAL SALMENTA, GOIZEAN ZEHAR**  
Foru plaza**04.07**  
**Igandea**10:30 URDUÑA  
**MENDI IBILALDIA**  
**Txarrazo antolatuta**  
Foru plazatik**04.10****Asteazkena**URDUÑA  
**HERRI GOSARIA**  
**Korrika igaro ostean (6:05ak aldera) egingo da, Urduñako Gazte Asanbladaren eskutik****04.12****Ostirala**15:00 URDUÑA  
**KORRIKA TXIKIA**  
**Antzinako Andra Mari eta Herri Ikastetxeko kideen eskutik**  
Herrian**04.13****Larunbata**URDUÑA  
**"IZERDI PATXETAN EUSKARAZ"**  
**Kirol ekimena, goizean**  
Foru plaza

**Idoia**  
**AGINAKO**

URDUÑAKO ALKATEA

**Klika, klika, klika badator Korrika!**

*Klika da euskararen aldeko urratsa ematea, klika da mugimendua, klika da musika eta melodia. Klika da ausardia, klika da apustua. Klika da euskaltegian izena ematea, eta gure lehen hitza euskaraz izatea. Klika da hizkuntza ohiturak aldatzea eta ondokoa animatzea. Klika da emozioa. Klika da oraina eta etorkizuna.*

*Lehen urratsak Garesen emango ditu aurtengo Korrikak, 21.edizioak, Gasteizen bukatzeko 10 egun zirrargarriren ostean. Eskurik esku pasako den lekukoak milaka kilometro egingo ditu Euskal Herriko txokoak zeharkatuz. Urduñatik ere pasako da, apirilaren 10ean goizaldeko ordu txikitik. Gu zain egongo gara furgonetan datozeinei eta ondoko herriko korrikalari euskaltzaleei egunona emateko.*

*Iritsiko da Urduñara eta joan egingo da oso azkar pasako zaizkigun minutu magikoen ostean. Baina Korrika ez da egun bateko kontua. Lan handia dago, bi urteko lana, Korrika bakoitzaren atzean. Milaka boluntario lanean ilusioa egi bihurtu dadin; milaka pertsona konprometitu euskarak egunerokoan bere bidea egin dezan, euskara gure aukera izan dadin.*

*Korrikara batuko gara hainbat tokitan, ordu desberdinetan, askotariko pertsona ugari, baina denak desio berberarekin: euskal herria euskalduntzen jarraitzea.*

*Animatzen zaituztet klika egitera, ez bakarrik apirilaren 10ean. Klika egin dezagun egunez egun, klika txikiekin gauza handiak lor ditzakegu eta. Gauza eder asko klik batera dauzkagu eta.*

*KLIKA AEK, KLIKA KORRIKA, KLIKA EUSKARA!*

## IBILBIDEA



*"Klika, klika, klika badator Korrika!"*

# ARRANKUDIAGA-ZOLLO

## Ordu erdiz egongo da Korrika Arrankudiaga-Zollon, eskutik eskura

Testua

**Txabi Alvarado Bññares**

Arrankudiaga izango da Korrikak apirilaren 10an bisitatu duen Aiaraldeko azken toki. Zazpi kilometroko ibilbidea egingo du herrian barrera. Ia ordu erdi baliatuko du furgonetak horretarako: 9:25ean iritsiko da euskararen aldeko aldarria Arakal dotik eta 9:49ean joango da Ugaora.



Korrikaren azken edizioa Arrankudiaga-Zollotik igaro zeneko irudia. Aiaraldea.eus

### Korrika kulturala

Azkar igaroko da Korrika Arrankudiagatik, baina giroa ez da berehalakoan joango. Arratsaldean txokolate janaz eta zurezko jolasez gozatzeko aukera egongo da herriko plazan, 16:30etik aurrera.

Hori izango da Korrika Kulturalaren baitan egingo duten

azken ekintza. Lehena ostiral honetan -apirilak 5- izango da: afaria egingo dute Gizarte Etxean, gaueko bederatzietan.

### Postre lehiaketa gaztetxean

Arrankudiaga eta Zolloko Gazte Asanbladak ere jarduer bat prestatu dute: Txondor Gaztetxeko Postre Lehiaketa-

ren lehen edizioa. Apirilaren 17an -larunbata- egingo dute norgehiagoka arratsaldeko bostetan, gaztetxean bertan. Sarrerak euro bat balioko du. "Postreak hartzeaz gain, kafea, infusioak eta kolakaoa hartzeko aukera ere egongo da", jakinarazi dute gazte asanbladako kideek.

## KORRIKA KULTURALA

**04.05**

**Ostirala**

21:00 ARRANKUDIAGA

**AFARIA**

Gizarte Etxea



**04.10**

**Asteazkena**

16:30 ARRANKUDIAGA

**TXOKOLATE JANA  
ETA ZUREZKO PLAZA  
JOLASAK**

Plaza

**04.13**

**Larunbata**

17:00 ARRANKUDIAGA

**I. POSTRE LEHIAKETA**

Txondor Gaztetxea



**Garazi  
ABRISKETA**

ARRANKUDIAGA-  
ZOLLOKO  
ALKATEORDEA

**Zain**

Norantza batean azken kotxeak pasatzearekin batera nabaritzen hasten gara giro berezia. "Gastaka pasatu duela!" "Ez. Aretatik datorrela." Iturri ez oso fidagarrietatik informazioa zabalitzen hasten da eta urduritasunak gora egiten du. "Osaba Jabi falta da", batek. "Ba Usterako Lourdes etortekoa da" besteak. "Badatoz!" Irr, irri. "Han Marisabel eta Mariloli! Eta... nok eroango dau lekukoa?" Err, herri. "Danon artien aurtien bebai." Arr, harri.

Ahots anplifikatu batekin nahasten dira urrunegi entzuten diren nota solte batzuk, baina ez gara ulertzeko gai. Korrika hurbiltzen direnen hasperenak entzuteko kapazak gara, ordea, euren bihotz taupadak gure egin eta gorputza martxan jartzen zaigu. Erritmoa hartzen dugu. Notak melodia bihurtzen dira apurka eta hitzak gure ahotara heldu. Jaiotzetik... Bat, bi, hiru... ilusionista, zortzi bederatziz hamar, atso-agure kontorsionista, ga gara, ge gero gu... gure borrokan tinko jarraitzeko hauspoa, euskararen bizitzaren geroaren atzetik, laga erdara, bizi ganoraz!

Eta orduan badatorrela ikusteko gai garenean, begietatik... klika! Negar malkoa ateratzen zaigu. Negar malko horrek ureztatzen du gure mingaina... ikimilikiliklik! Lekukoa jaso eta tipi-tapa, tipi-tapa, Kantauriko brisa gara, Bardeetako ziertzoa. Gu gara gure gero.

Kilometroa ia amaitu ezinda... Aide korrika, bejondeigula!

## IBILBIDEA



ARRANKUDIAGA ZOLLO UDALA  
AYUNTAMIENTO ARRANKUDIAGA ZOLLO

"Ikimilikiliklik KLIKA!"

# ARAKALDO

## Bi kilometroko bidea egingo du Korrikak Arakaldon, ziztu bizian

Testua  
Txabi Alvarado Bañares

Ziztu bizian igaroko da Korrika Arakaldotik datorren apirilaren 10ean, bi kilometroko ibilbidea eginez. 9:12ak aldera sartuko da herrian, eta 9:25etarako Arrankudiagan egongo da dagoeneko.

Oraindik ez dute zehaztu nork eramango duen lekukoa, baina herriko bizilagunek aktiboki parte hartuko dutela aurreikusi daiteke, aurreko edizioan bezala.

### Inurri lana

Arakaldon ez dute euskararen aldeko ekimen ikusgarriarik egiten, baina inurri lan handia gauzatzen dute. Horren seinale da azken urteetan egin diren ekimenetan bizilagunek izan duten inplikazio altua. 2017ko Ahobizi eta Belarripresten dinamika da horren



Korrikaren azken edizioa Arakaldotik igaro zeneko irudi bat. Aiaraldea.eus

adibide. Herriko whatsapp taldea eta Facebooka baliatu zituzten deialdia zabaltzeko, eta egitasmora jende ugari batzea lortu zuten.

Iazko Euskaraldiak ere arrakasta nabarmena izan zuen herrian: 16 Ahobizi eta 6 Belarriprest batu ziren kanpainara. Oso zifra esanguratsua da,

Arakaldon 164 bizilagun baino ez daudela kontuan hartuta. Hau da, herritarren ia %10a batu zen euskaraz bizitzearen aldeko erronkara.



Jabi  
ASURMENDI

ARAKALDOKO ALKATEA

### Gure erritmora, egin klika Korrikari!

Bi urtero legez, badator, badator Korrika! Garestik Gasteiza, apirilaren 4tik 14ra eta tartean, Arakaldotik ere igaroko da, apirilaren 10ean. Bai apirilak 10 gorritz markatu genuen egutegian AEK-k ibilbidea aurkeztu zuen unetik.

Berriro ere furgoneta koloretso, argitsu eta zaratsatu baten atzean lekuko bat eskuan, pankarta bat helduta eta emozioz beterik jende multzo bat pasatuko da gure herritik ziztu bizian. Zenbat denbora itxaron behar, eta zein azkar pasatzen den, baina zein biziki bizi izaten dugun.

Minutu batzuetan baino ezin dugu gozatu gure kilometroa, baina nahikoa da guran klika egiteko, gu aktibatzeke, gure barrukoa mugitzeko, ozenki aldarrikatzeko, bakoitza bere erritmora, klika eta korrika.

Eta zer litzateke Korrika edizio bakoitzaren abestirik gabe, behin Korrika igarota, oraindik nork bere gomutan ahapetik abesten jarraitzen duen abesti hori gabe.

Aurtengoak dioen bezala, posiblea da klika aldatzea, elkarren artean konektatzea, praktikatzea, euskara gure artean bizitzea, lan eta lan, banaka, taldeka, baina zu gabe ez da posible.

Eta zer litzateke Korrika edizio bakoitzaren omendurik gabe, aurtan Txilardegi da. Zerk egin du Euskal Herria? Zerk eman dio bere izakera? Zerk bizi gaitu? Zerk ematen digu gure arima herri bezala? Euskarak ez bestek.

Adi, adi, Arakaldoko gure kilometroan jar zaitez, herriaren arnasa sentitzeko Korrika datorrenean gutxi falta da eta.

## IBILBIDEA



“Arakaldon gure erritmora,  
klika korrika klika!!”

# analisi

Korrika girotzeko berebiziko tresna bilakatu zen aspaldi edizio bakoitzeko abestia; eta, azken urteetan, baita bideoklipa ere. Kantek jendea lotzeko gaitasun ikaragarria lortu dute, baina “Klika” leloa zabaldu duenak hautsak harrotu zituen hasieran. Eztabaida horretan, non kokatu zure iritzia? Purista edo modernoa? Kaikua ala txandala?

## “Klika” bideoklipa, alde ala kontra?



Testua

**Aitor Aspuru Saez**

Iragan azaroaren 29an aurkeztu zuten aurtengo Korrikaren edizioaren bideoklipa. Ezustean, polemika piztu zuen Fermin Muguruzak eta hainbat sortzailek egin dako abestiak. Arraroa da horrelako ekimen batean zerbaitek hautsak harrotzea. Izan ere, badirudi euskaldun orok daukala txokoa bihotzean Korrikarako, eta norabide horretatik datorrena, printzipioz, modu atseginean onartzen dela.

Aldiz, “Klika” abestiak eta bideoklipak desadostasuna eragin zuen euskaldun sutsuen artean, eta polemika euskal burbuila bertualaren tamainakoa izan bada ere (hau da, txikia), esanguratsua ere izan da.

Hasteko, esan beharra dago, jende askoren adierazpenetan sumatzen zela klipean islatzen den modernitatea eta tradizioa uztartzeko saiakerak fobia sortu ziela. Berez, bideokliplean euskal dantzen eta kaleko dantzen (break dance, hip hop...) lehia antzezten da (eta gure ohiturek ez dute irabazten).

Zentzu horretan, bistakoa eta ukaezina da euskaldunak atzerakoiak garela kontu estetikoetan. 80ko hamarkadaren hasieran batzuek Rock Radical Vasco deiturikoa salatu zuten punka eta rocka amerikarren asmakizuna zirelako (erreparatu gabe zer nolako eragina izan zuen iparraldeko zein hegoaldeko folk amerikarrak Mikel Laboaren, esaterako).

### Klasismoa

Kosmopaletismoaren aurrean (hau da, kanpotik datorren edozein moda modu akritikoan ospatu eta onartzeko joeraren aurka) euskal zuhurtzia atzerakoi hori maiz osasuntsua izan da iruzurren esku ez geratzeko. Hala ere, ez legoke txarto nork bere buru-irigaldetzea zein neurrian “urban

style” horren ukazioaren atzean klasismo hutsa ez ote dagoen.

Txandala, arropa elastikoa, top-ak... ez dira klase ertaineko euskaldun peto eta zintzoen irudiansartzen, gizartearen alde lumpenari egozten baitioguestetika hori. Itxura hori gimnasioetan, diskoteketan eta abarretan kokatzen dugu, eta, tamalez, estereotipo klasistak azken muturrera eramanda, Ezkerraldean eta Bilbo Metropolitanoko zenbait auzotan zokoratzen ditugu. Erreparatu gabe Euskal Herriko jende gehiena han pilatzen dela.

Hala ere, irudi horri erantzunez, Ainhize Solaun aiaraldea-rra agertzen da bideokliplean figurante gisa. Dantza irakaslea da Solaun. Bere iritzia argia da: “Abestia oso gogoko dut eta bi-

deoa baita ere. Dantzariak oso onak dira. Ulertzen dut abestia arrotza izatea, baina estilo ezberdinak uztartzen ditu eta oso dantzagarria da. Gainera, kolore asko ditu bideoklipak”.

Poztasun horrekin alderatuta, eta ezadostasun klasistak edo estetikoak baztertuta, kritiko batzuek umeak gatibu moduan erabili zituzten “Klika” kantaren aurka. Hain zuzen, irakasle batzuek aipatu zuten ezinezkoa zela umei abestia erakustea, us-tez ez baitzuen melodiarik! Une horretan iruditzen zitzaizkidan Maud Flanders -Ned Flandersen emaztea- entzuten nuela The Simpsons telesaioan oihukatzen: “inork ez al du umeengan pentsatuko?”.

Ziurrenik, irakasle horiek sor-



**80ko hamarkadaren hasieran batzuek Rock Radical Vasco deiturikoa salatu zuten punka eta rocka amerikarren asmakizuna zirelako**

presa ederra hartuko lukete ume eta gazteekin hitz eginda, errazagoa izan baitaiteke eurentzat hip hop, trap edo dancehall musika jarraitzea gitarraz jotzen den beste edozein genero baino, hori entzuten baitute ohikoan.

Idoia Jimenez Ibarrola tradizioa ordezkatzeko duen azkenengo pertsona da bideoklipan, txistua jotzen baitu abestian. Lau-dioarrak ere aldeko iritzia du, baina bere adierazpenetan sumatzen da kritiken berri izan duela: “abestia polita, arina eta dantzagarria iruditzen zait, are gehiago proiektuan parte hartu ostean. Letra ikastea eta abestia zaila izan daiteke, baina kliparen zuzendariaren beste kantu asko ezagutu ondoren, honek ez nau hainbeste harritu. Ulertzen dut

# analisia

jende askok gustukoa ez izatea, dena den, egungo abestia da eta aukera bat merezi du".

## Egiletza

Aurreiritziak alde batera utzita, zalantzarako tartea dago gus-tuei dagokienez, jakina. Bide horretatik, agian Fermin Muguru-zaren hautaketa eztabaidagarriagoa izan daiteke -errespe-  
tuz- osoz. Argi dago berak ahalegin izugarria egin zuela Negu Gorriak taldeko garaian hip hopa gureru ekartzeko, baina XXI. mendean hip hopak eta trapak berezko bizitza dute Euskal Herrian.

Ez da beharrezkoa izan 55 urteko gizonezko batek soinu horiek babestea, Gorpuzkingz bezalako talde batek defendatu ditzake, adibidez, behi sakraturik gabe. Izan ere, hip hopa eta trapa ez dira geldirik egon Muguruzak landu ez dituenean, baina, tira, hori antolatzaileen erabakia izan da, eta bistakoa da ere iruindarrak musika ez ezik, bideoa ere nabarmen jorratu duela.

Bestalde, artearen esparruan ere egon da eztabaida. Batzuen-tzat emaitza ez da guztiz ona izan, apur bat behartuta egon de-

**Ume eta gazteentzat errazagoa izan daiteke hip hop, trap edo dancehall estiloak jarraitzea gitarraz jotzen den beste edozein genero baino, musika mota hori entzuten baitute ohikoan**

lako. Horretan, nola ez, ezin sar-tu, gustu soila denean, ez dago irizpiderik. Nik, behintzat, oso gustuko izan dut kanta zein bi-deoa.

## Etorkizunera begira

Dena dela, etorkizunean lite-keena da "Klika" abestiaren in-darguneak eta ahulguneak modu gardenenagoan irautea. Hala ere, nire uste apalean, nahiko modu koherentean jarraitzen du Ko-rrikaren abestien bilakaera; ba-tzuk motelagoak, beste batzuk bi-ziagoak, genero batzuk edo bes-teak jorratuta (gogora ezazue azken edizioetan Esne Beltza eta Gose bezalako taldeek elemen-tu berriak gehitu dituztela), bai-na modu dinamikoan garatu du gustuen aldaketa.

Berez, urte batzuk barru kan-tak agian adieraziko digu gure iritziei buruz espero baino gehia-go. Honekin zer esan nahi dut? Adibidea jarriko dut eskualdera ekarrita. XXI. mendearen hasie-ran, Hemendik At-ek arrautzaka-da jaso zuen Amurrion kontzer-tu batean, eta askok barrez har-tu genuen albistea. Egun, nik zein arrautza bota zutenek lotsa sen-titzen dugu (galdetu diet, ez pen-

**Hemendik At-ek arrautzakada jaso zuen Amurrion. Egun, nik zein arrautza bota zutenek lotsa sentitzen dugu eurodance talde euskaldun bati burla egiteagatik**

tsa) eurodance talde euskaldun bati burla egiteagatik. Egia da ga-rai horretako testuingurua ko-rapilatsuagoa zela, Txitxarroko leherketak islatu zuen moduan. Baina, azken finean, Hemendik At-eko abeslariak arrautzakada jaso bazuen, garaietarako hete-rodoxoegia izan zelako izan zen.

Denborak aurrera egin ahala, agian "Klika"-rekin gauza bera gertatuko da eta beste saiakera bat izango da (egungo rap eta trap taldeek egiten duten moduan) jende, genero eta estetika gehia-go euskararen mundura batze-ko, purista damutuen lotsarako.

Momentuz, abestiaren helbu-rua leloa zabaltzea bazen, lortu du soberan xedea, agertu bezain laster euskaldun oro behartuta egon baitzen kantaren alde edo kontra lerrokatzerak. Ezinezkoa zen, bestela, modernoa eta cool izatea gure unibertso txiki eta autoerreferentzial honetan.

Oscar Wildek adierazi zuen bi-zitzan garrantzitsuena zela jen-deak norberari buruz hitz egi-tea, onerako bazen ere. Horre-gatik, batzutan nire susmoa da Fermin Muguruza bera izan dela polemika sustatu duena, twitter profil faltsuak balitatuta.

## Bertsotan eta rapeatzen

*Herria martxan jarri izan da  
korrika hamaika urtez  
aurten ere bidean daukagu  
herri ta berriak betez  
Baina euskara egun bateko  
eslogana ez dugunez  
Gerora ere, jarrai dezagun  
korrika ez bada oinez*

**Ainhoa  
COMAS**

*Euskal herri,  
harri herri  
Borroka eredu ta iturri  
tamalez, askatasun egarri.  
Korrikaren bidez  
hizkuntza euskarri,  
Pausoz-Pauso aurrera,  
gure euskara armarri*

**OKHER**



**arrate**  
gestoria • aholkularitza • aseguruak

Iturralde kalea 2, AMURRIO  
945 89 02 06  
info@arrategestoria.com  
www.arrategestoria.com

Utzi zure **errenta 18**  
profesionalen eskuetan

20 urte baino gehiagoko esperientzia  
Profesional adituak eta arituak  
Zure beharrei egokitutako prezioak

Errenta-aitorpenean emaitzarik onena bermatzen dizugu



**APIRILAK 10**  
08:39  
1385.kilometroa

**Klika**  
21. korrika  
GARETIK GASTEIZA

# argazkiak



## 39 urteren lekukotzak


Korrikaren 21. edizioa izango da aurtengoa. 1980. urtean egin zen euskara sustatzeko egitasmoak ibiltari hori lehenbiziko aldiz, *Zuk ere esan bai euskarari* lemapean. Orduz geroztik ugariak izan dira ekimenak utzi dituen bizipen, anekdota eta oroitzapenak. Une horietako argazkietan erretratatuta geratu dira, belaunaldi berrientzako lekukotza gisa.

### KORRIKA TXIKIAK

*Korrika Txikiek ere historia luzea dute atzetik. Aiaraldeko hainbat herritan egiten dira ikasleei bideratutako ekimen horiek, hezkuntza zentroetan Korrikarekin egiten den lanketaren barruan. Ikastetxe askoren arteko hartu-emanak sendotzeko balio izan du egitasmoak.*



argazkiak



INTERNET ETA  
TELEFONO  
GABE, NOLA  
ZEN POSIBLE?

*Gaur egun zaila da  
imajinatzea nola lortu  
zuten Korrikaren  
lehen edizioetako  
antolatzaileek  
Inernetik edota  
mugikorrik gabe  
moldatzea*

WEBGUNE  
BEREZIA:



ALDARRIEN  
PLAZA

*Euskararen aldeko zein  
bestelako aldarriak  
plazartzeko gunea izan da  
Korrika urte askotan zehar.  
Urduñako bizilagunek,  
adibidez, D eredua izango zuen  
eskola aldarrikatzeko baliatu  
zuten lasterketa*



IBILBIDEA

*Urte asko igaro arren, Korrikak eskualdean uzten  
dituen irudi asko edizioz edizio errepikatzen dira  
(Barrerillako jaitsiera kasu).*





# Korrika agenda





## Urduña

Apirilak 10

05:00

Barrerillatik hasita.



## Amurrio

Apirilak 10

06:11

Urduñatik iritsita.



## Arespalditza

Apirilak 10

7:10

Amurriotik igota.



## Luiaondo

Apirilak 10

8:00

Murgatik etorrita.



## Laudio

Apirilak 10

8:17

Luiaondotik pasata.



## Arakaldo

Apirilak 10

9:12

Areta atzean utzita.



## Arrankudiaga

Apirilak 10

9:25

Arakaldori lekukoa emanda.



## Artziniega

Apirilak 11

8:57

Aiarako mugak igarota.

## MUSIKA

04.10

**Asteazkena**

AIARA

**DISKOFESTA**

Luiaondoko frontoia

## UMEENTZAKO EKINTZAK

04.07

**Igandea**

17:00 AMURRIO

**"KOLORE ANITZAK"**

Ipuin kontaketa musikatua

Sarrera: 5 euro

Amurrio Antzokia



04.10

**Asteazkena**

17:30 LAUDIO

**POTXIN ETA PATXIN**

**PILAZOAK**

Sarrera: 3 euro

Kasinoa

04.10

**Asteazkena**

16:30 ARRANKUDIAGA

**TXOKOLATE JANA ETA**

**ZUREZKO PLAZA JOLASAK**

Plaza

04.12

**Ostirala**

15:00 URDUÑA

**KORRIKA TXIKIA**

Herria

04.12

**Ostirala**

15:15 AMURRIO

**KORRIKA TXIKIA**

Herria

04.12

**Ostirala**

16:00 OKONDO

**KORRIKA TXIKIA**

Korrika txikia, askari

osasungarria eta disko-festa

Herria

## ANTZERKIA

04.05

**Ostirala**

19:30 LAUDIO

**"NERETIK"**

Andoni Egañarekin

Prezioa: 3 euro

Kasinoa

04.07

**Igandea**

18:30 LAUDIO

**"DESENTXUFATUAK"**

Patxo Telleria eta Mikel

Martinezzen antzezlan

Prezioa: 3 euro

Kasinoa



## KIROL JARDUERAK

04.07

**Igandea**

10:30 URDUÑA

**MENDI IBILALDIA**

Txarrazok antolatuta

Foru plazatik

04.07

**Igandea**

8:30/9:30 LAUDIO

**MENDI IBILALDIA**

Ugarte Auzo Elkarateak eta

Basalarrinak antolatuta

Ugarteko plazatik

04.13

**Larumbata**

URDUÑA

**"IZERDI PATXETAN**

**EUSKARAZ"**

Kirol ekimena, goizean zehar

Foru plaza

## ZINEMA

04.04

**Osteguna**

19:00 LAUDIO

**"GURE OROITZAPENAK"**

Laudioalde

## BESTELAKOAK

04.03

**Asteazkena**

AMURRIO

**IGEL ETA DARDO**

**TXAPELKETA**

Euskaltegia

04.05

**Ostirala**

21:00 ARRANKUDIAGA

**AFARIA**

Gizarte Etxea

04.06-04.07

**Larumbata eta**

**igandea**

URDUÑA

**MATERIAL SALMENTA,**

**GOIZEAN ZEHAR**

Foru plaza

04.10

**Asteazkena**

URDUÑA

**HERRI GOSARIA**

Korrika igaro ostean,

Urduñako Gazte

Asanbladaren eskutik

04.11

**Osteguna**

19:00 LAUDIO

**KORRIKATIK**

**OLINPIADETARA**

Kale animazioa

Laudioko kaleetan

04.12

**Ostirala**

OROZKO

**KORRIKAREN ALDEKO FESTA**

**Arratsaldean zehar**

Herria

04.14

**Igandea**

**GASTEIZERA JOATEKO**

**AUTOBUSAK**

Herri gehienetatik

**INFO +**

[aiaraldea.eus](http://aiaraldea.eus)

# OKONDO

## Korrika Txikirako motorrak berotzen hasi dira eskolan

Testua  
Txabi Alvarado Bañares

Duela lau urte -2015ean, alegia- igaro zen Korrika azken aldiz Okondotik. 2017ko edizioan ez zuen herria bisitatu, eta aurtengo ere ez du egingo. Hala ere, euskararen aldeko ekimenak presentzia izango du Okondon, Korrika Txikia egingo baitute eskolako haur eta irakasleek.

Apirilaren 12an -ostirala- egingo dute egitasmoa, arratsaldeko lauretan. "Parke berriak etxe berrietara dagoen bidea egingo dugu, joan eta etorri", jakinarazi dute eskolako kideek. 42 hurrek hartuko dute parte ekimenean eta gero "askari osasungarriaz" eta disko-festaz gozatu ahal izango dute, Okondoko Udaren eskutik.

Korrikaren unitate didaktikoak planteatzen dituen ari-



Hainbat pertsonaia baliatzen dituzte Okondoko eskolan euskara sustatzeko. **Okondoko Eskola**

ketak lantzeari ekingo diote datozen egunetan hezkuntza zentroan. "Petoak marraztuko ditugu eta abestia entzungo dugu, besteak beste".

### Lau pertsonaia

Lau bidelagun izango dituzte Okondoko Eskolako ikasleek Korrika lantzeko: Kirru, Karmele, Matilda eta Sidirena.

"Euskararen erabilera sustatzeko baliatzen ditugu pertsonaia horiek. Kanpotarrak dira, eta hurrek euskara irakatsi behar diete".



**Sergio TATO**

OKONDOKO ALKATEA

### Euskara, gauza ororen gainetik mantendu beharreko balio kulturala

Hemen dugu berriro Korrika, Euskal Herria bi urtean behin zeharkatzen duen lasterketa, euskararen alde kontzientziak astintzeko.

Hemen bizi garen pertsona guztion hizkuntza da euskara, hitz egiten dugunena eta baita hitz egiten ez dutenena ere, euskaltegietan ikasi genuenona eta jaiotzetik dakitene-na.

Baina euskara bada hizkuntza horretan mintzatzen ez diren eta inoiz mintzatuko ez diren horien ere, pertsona eta herri guztien ondarea delako.

Mugak eta ideologiak gainditzeko dituen balio kulturala da euskara, guztiaren eta guztion gainetik mantendu beharreko ondarea da. Horregatik, Okondo batu egiten da euskararen aldeko borroka honetara, "Klika Korrika klika, gure erritmorra" lemapean.

Korrikaren 21. edizioa izango da aurtengoa. 39 urte bete ditu egitasmoak Euskal Herriko txoko oro bisitatzen. Aurtengo Aiaraldeko beste herri batzuetatik igaroko da eta gu apirilaren 12an batuko gara, gure herriko eskolaren Korrika Txikiarekin eta ekimenak merezi duen jaiarekin. Euskaraz parte hartu, korrika egin eta hitz egingo dugu urteko 365 egunetan.

## IBILBIDEA



PARKE BERRIA

**Carlos Garaikoetxea**  
Lehendakaria etorbidea

16:00

AURORA  
MENDIETA  
HAUR  
ESKOLA



OKONDOKO UDALA

"Euskara da korrikaren  
abiapuntua eta helmuga"

## LAUDIO

# la ordubeteko bisita egingo du Korrikak Laudion

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Gauza bat argi dago: Oso zaila izango da 2017ko Korrikak Laudion hautsi zuen marka gainditzea. Azken urteetako korrikarik jendetsuena izan zen, milaka lagun batu baitziren. Baina kontuan izan behar da hainbat faktore alde izan zituela: Dolumin Barikuko eguerdian igaro zen, eguraldi ona lagun.

Aurten aldiz, apirilaren 10ean bisitatuko du herria euskararen aldeko ekimen ibiltariak, 8:17ean. 18 kilometroko bidea osatuko du, 9:07ean Arakaldora igarotzeko. Hala ere Asier Amondoki ziur dago aurten ere jende andanak parte hartuko duela. "Egia da aurrekoan Dolumin Barikua izateak eragin handia izan zuela, jai eguna izan zelako", aitortu du Korrikaren arduraduna den Asier Amondok, "baina

aurten ere jende andana batuko dela uste dut".

## Ikuskizunak nagusi

Korrika Kultural oparoa antolatuko dute Laudion. Bihar -osteguna- *Gure oroitzapenak* ikusi ahal izango da Audioalden, Joseba Sarrionandiaren obran oinarritutako pelikula kolektiboa.

Ostiralean, aldiz, *Neretik* ikuskizuna taularatuko du Andoni Egañak Lamuza parkeko kasinon, 19:30ean. Toki berea eskainiko dituzte *Desentxufatuak* umore antzezlanak eta Potxin eta Patxin pailazoaren emanaldia; apirilaren 7an eta 10ean izango dira, hurrenez hurren. Hilaren 11an, aldiz, *Korrikatik Olinpiadetara* kale animazioa egongo da.

Kirolak ere presentzia izango du Korrika Kulturean. Datorren igandean mendu ibilaldia egongo da Ugarteko plazatik abiatuta.

## KORRIKA KULTURALA

**04.04 Osteguna**  
19:00 LAUDIO  
"GURE OROITZAPENAK"  
Audioalde



**04.05 Ostirala**  
19:30 LAUDIO  
"NERETIK"  
Andoni Egañarekin  
Kasinoa



**04.07 Igandea**  
18:30 LAUDIO  
"DESENTXUFATUAK"  
Kasinoa

**04.07 Igandea**  
8:30/9:30 LAUDIO  
MENDI IBILALDIA  
Ugarteko plazatik

**04.10 Asteazkena**  
17:30 LAUDIO  
POTXIN ETA PATXIN  
PAILAZOAK  
Sarrera: 3 euro  
Kasinoa



**04.11 Osteguna**  
19:00 LAUDIO  
KORRIKATIK  
OLINPIADETARA  
Kale animazioa  
Laudioko kaleetan



**Natxo URKIXO**

LAUDIOKO ALKATEA

## Klika Laudio!

Korrikaren 21. edizio honetan, Txillardegik omendu nahi izan du aek-k. Egia esan, honelako omenaldia Txillardegik beste merezi duen jende gutxi etortzen zait burura.

Euskalakari izan gaitezen proposatu zigun aek-k 17.enean eta 19.enean gu guztiok euskalduntzea izan zuen helburu. Oraingoan aldiz, barnera begira para gaitezen eta gure baitan klika egiteko abagunea bila dezagun proposatu digu.

Txillardegiri berari ere zerbait egin zion klika errailetan, bihotzean ala buruan; nork daki. Eta euskal herritarra zelarik ganoraz bizi ahal izateko euskaldundu eta euskaraz bizi behar zela erabaki zuen. Hala egin zuen eta hala adierazi izan zuen beti bai hitzez eta bai ekintzez ere.

Nork bere unea eta klika bilatu behar ditu. Euskaraz biziko bagara, ahalegin kolektiboa egin behar da baina, zalantzarik gabe, norbanako bakoitzaren baitan zerbaitekin egin behar du klika.

Balia dezagun 21. Korrika hau gure baitako klika topatzeko. Eta erne ibili! Retak eta Narkuek eskaini diguten jotak dioen bezala:

Klik!  
Egin ezazu klika  
Badatorrela Korrika!  
Ikimilikiliklika!

Hemen entzun daiteke jota hori:



Agur eta ohore Txillardegik, Igara, Usako, Harritzkieta edo Larresoro... , Jose Luis azken finean. Adiskide eta lankide. Gora hi!

## IBILBIDEA



# AIARA

## Arespalditza, Murga eta Luiaondo bisitatuko ditu Korrikak

Testua  
Txabi Alvarado Bañares

Amurriotik egingo du salto Korrikak Aiarara, apirilaren 10ean. 7:10ak aldera sartuko da euskararen aldeko aldarria udalerrian. Los Olmos auzotik sartuko da furgoneta, Arespalditzara iristeko. Luiaondora joko du jarraian, Murgatik igarota. Ordubete beharko du 12 kilometroko ibilbide hori egiteko. Ondoren, 8:12ean, Laudion sartuko da.

### Disko-festa Luiaondon

Iragan martxoaren 22an egin zuten Korrikaren aurkezpena Arespalditzan. Datoren apirilaren 10ean -asteazkena-, aldiz, disko-festa egingo dute Luiaondoko frontoian. Aurten ez dute Korrika Txiki-rik egingo ikastetxean, "Korrika handian" hartuko baitute parte zuzenean.



Korrikaren azken edizioa Aiaratik igaro zeneko irudi bat. Aiaraldea.eus

**Ekimenak euskararen alde**  
Euskararen aldeko jarrera ez da Korrikarekin batera joango Aiaratik. Egitasmo gehiago

egingo dituzte udalerrian urtean zehar. Udazkenean euskararen aldeko asteburua egingo dute. Arespalditzara bertara-

tuko dira Aiarako 24 herrieta-ko bizilagunak, euskaraz bizitzeko konpromisoa berresteko.



**Gentza  
ALAMILLO**

AIARAKO ALKATEA

### Lekukotik lekukora

Gogoan dut oraindik ere, Korrikako dortsal propioa prestatzen genuen garaia. Orri txuri batean "Korrika" hitza eta zegokion edizioaren zenbakia-ri koloreak ateratzen genizkion. Urduriaren urduriaz, marra beltzak gainditu eta errotulatzaille, margo eta tenperaz betetzen genituen ikastolan, nagusien antzera, guk ere dortsala jantzi eta, tipi-tapa tipi-tapa, euskararen aldeko lasterketa gogoangarrian parte hartu nahi genuelako.

Orain neure seme-alabak dira egin behar hori dutenak eta guk, gure gurasoek utzitako lekukoari eutsi diogu. Pixkanaka-pixkanaka bakoitzak bere erritmorik Korrika handi egin dugu: gure txikiek, bere urrats eta jauzi eroekin Korrika txikian parte hartuta. Eta guk, aurten Nafarroatik abiatuta eta Gasteiza bitarteko hogeita batgarren edizioan euskarari arnasa emanez.

Txikiak handi, handiak txiki.

Bakoitzak bere euskararekiko konpromiso propioa du eta guztiak ere garrantzitsuak dira, behin betiko euskarak bere tokia emateko: euskaraz lehen hiruzpalau berba ikasten hasten direnenak, euskara bihotzean eta ahoan daramateneak. Txikiak handi, handiak txiki, denak ere euskarari klika egiteko prest.

Eta aiararrak ez gara salbuespen izango; orain dela bi urte, 2015ean, 2013an, 2011n eta Korrikaren lehen edizioan egin bezala, zapatilak jantzi eta korrikan egiteko eta Korrika egiteko prest gaude.

Horrexegatik, euskaragatik, euskaldunongatik eta euskaldun izan nahi eta izango direnengatik...

## IBILBIDEA



**Aiarako Udala**  
Ayuntamiento de Ayala

*"Keinu txikienak ere euskara  
pizten duelako: aiararrok ere klika  
euskarari!"*

## AMURRIO

# 15 kilometro osatuko ditu Korrikak Amurrion barrena

Testua  
Txabi Alvarado Bañares

15 kilometro egingo ditu Korrikak apirilaren 10ean Amurrion. 6:11ak aldera sartuko da udalerrira, eta ia ordubete emango du auzo eta kaleak bisitatzen, 7:06ak arte. Aiara-igaro da gero, eskualdean barrena egingo duen ibilbidea jarraituaz.

## Italiako ikasleak korrika

Aurreikusi daitekeenez, une berezi eta gogoangarri ugari utziko ditu Korrikak Amurrion. 1.358. kilometroan jazo da pasarte horietako bat. Zaroabe Institutuko trukaketako programako ikasleak egongo dira bertan. Salernotik (Italia) iritsi dira ikasleak, Aiaraaldean egonaldia egiteko. Ezin zuten data aproposagorik hautatu.

Korrika ez da furgonetarekin batera joango Amurriotik.



Korrikaren azken edizioa Amurriotik igaro zeneko irudi bat. Aiaraldea.eus

Bi egun beranduago -apirilaren 12an- beste ekimen esanguratsu bat egongo baita: Korrika txikia. Herriko ikastetxeetako ehunka ikaslek hartuko dute parte egitasmoan, 15:15etik aurrera. Egitarau oparoa antolatu dute Korrika kulturalaren baitan. Egin dituzte dagoeneko jarduera gehienak,

baina bi falta dira: gaur -apirilak 3- igel eta dardo txapelketa egingo dute Euskaltegian. Igandean, aldiz, *Kolore anitzak* ikuskizunaz gozatzeko parada egongo da Amurrio Antzokian arratsaldeko bostetan, 5 euroren truke. Ipuin musikatuaren emanaldia izango da, haurrei zuzendutakoa.

## KORRIKA KULTURALA

04.03

### Asteazkena

AMURRIO  
IGEL ETA DARDO  
TXAPELKETA  
Euskaltegia

04.07

### Igandea

17:00 AMURRIO  
"KOLORE ANITZAK"  
Sarrera: 5 euro  
Amurrio Antzokia



04.12

### Ostirala

15:15 AMURRIO  
KORRIKA TXIKIA  
Herria



Josune  
IRABIEN

AMURRIOKO ALKATEA

## Klika, klika, klika, badator Korrika!!

Iritsi da bi urteren ostean euskararen alde "klika" egin eta zapatilak berriz janzteko unea! Goizeko 06:00etarako iratzargailua jarri eta Korrikari ongietorria egingo diogu amurriotarrok apirilaren 10ean, une hunkigarriak eta zirrargarriak beste behin bizitzeko prest.

Korrika dihardugula, euskararen alde egindako lana aintzat hartuko dugu eta urrats gehiago egiteko lekukoari heldu. Amurrion asko izan zarete azken hamarkadetan, eta baita azken bi urteotan ere, euskara bultzatzen kementsu aritu izan zaretenak: ikastetxeak, 1.000 ahobizi zein belarriprest, Berbalagunak, gurasoak, Etorkizuna futbol taldea eta hainbat elkarte, Inauxa eta Amurrio Ferrocarriles enpresak, merkatariaik eta ostalariak... denak gara ezinbesteko euskararen normalizaziorako.

Baina bada aitortza hori modu berezian eskertu beharreko eragile bat: euskaltegiak. Hamarkada luzez helduen belaunaldiak euskalduntzen etengabe nekaezin aritu dira, Euskal Herri osoan. Eta horretan aitzindari AEK izan dugu, egun Amurrion dugun euskaltegi bakarra, hainbat amurriotarrek gure herritik kanpoko euskaltegietan ikasten badute ere. Bejondeizuela guztie! Helduak euskalduntzeko lanean bidelagun izango gaituzue.

Eta Korrika pasatakoan ere, Amurrion euskarari "klika" egiten jarraituko dugu, mingainak astinduz, maiatzaren 17ko Euskaraz Bizi Nahi Dut Egunean, Berbalagunen, hurrengo Euskaraldian, lantegietan, kiroldegian, kalean... eta nola ez, euskaltegian!

## IBILBIDEA



# analisia

90eko hamarkadan erlijio bilakatu zen Euskal Herrian Dragoi Bola eta umeek euskaraz ikusten zuten egunero bere telebista saio kuttunena. Gazteleraz ematen ez zutenez, haur espainiar

asko hizkuntza gutxituetara jarri ziren begira. Hona hemen hausnarketa bat euskararen zabalpenerako estrategiari, marrazki bizidunei, globalizazioari eta Interneti buruz.

## Son Gokuk euskararen alde borrokatu zuenekoa



Testua

Aitor Aspuru Saez

Akira Toriyama manga egi-leak sortutako telebista saioa ETBian eman zuten lehenengo aldiz 1990ean eta bere arrakastak ez du onartzen inolako zalantzarik. Jolastokietan Son Goku eta bere lagun eta etsaiei buruz urte luzez hitz egin zen, baita bere borroka teknika bitxiak kopia ere.

Hala ere, Dragoi Bolarengarai-pena ez zen bakarrik izan kultura japoniarra hainbat haurren erdigunean jartzea, baizik eta, bereziki, euskara berarekin eramatea, zorioneko Troiako zaldia izango balitz bezala. Son Gokuren abenturei esker, gune nagusiki erdaldunetan bizi ginenok ere ohitu ginen berehala hitanoa entzutera eta modu naturalean onartzera euskararen aberastasuna, kolokan jarri gabe zergatik ez genuen euskara mota hori gure klaseetan entzuten.

Euskara tresna hegemonikoa bilakatu zen arratsaldero Euskal Herrian gazte belaunaldi batean, gutxienez.

Dragon Ballen arrakastaren ondorioz, Estatu Espainiarreko hainbat umek lehenengo aldiz erreparatu behar izan zieten elementu exotiko eta baztertu horiei; hizkuntza gutxituei, alegia, Konstituzioak aipatzen dituenak, baina euren gotorlekuetan zokoratuak bizi direnak.

Andaluziako Canal Surren 1989an arrakasta gutxirekin igorri ostean gazteleraz, 1997an Antena 3ek erosi zituen Dragon Ballen eskubideak. Hala eta guztiz ere, 8 urte horiek izan ziren Dragoi Bolaren sukarraren bolada kritikoena eta tarte horretan eman zen esplotazio nagusia (pegatinak, promozioak, kro-moak...) gure herrian, behintzat.

Izan ere, zenbait urtez haur espainiarrek ezin izan zuten Dragon Ball gazteleraz jarraitu eta bere burua behartuta ikusi zuten katalanez (Bola de Drac), galizieraz (As boas maxicas) edo eus-



Son Gokuren abenturek euskara hainbat umeren egunerokotasunean txertatzeko balio izan zuten. Aimar Gutierrez Bidarte

karaz (Dragoi bola) kontsumitze-ra. Gazte horiek hurbilen zuten kate autonomikoa hartzen saiatzen ziren, edota Katalunian, Galizian eta, Euskal Herrian zituzten senideei eskatzen zieten atalak grabatzea VHS zintetan.

Berez, FORTA plataformak (telebista autonomikoak batzen dituen) apustu handia egin zuen Akira Toriyamaren lanaren alde eta jarraitzaileek arrazoia eman zioten.

### Lau telebista kate

Irakurle millennial gazteok, hotzikara sortuko dizuen garai bati buruz idatziko dizuet: Internet gabeko aroa. Telebista autonomikoak sortu arte –ETB 1982koa da–, TVEak besterik ez zuen agintzen Estatu espainiarreko ikus-entzunezkoen ar-

**Dragoi Bola saioak euskara eramane zuten milaka umeren aisialdiaren erdigunera, baita nagusiki erdaldunak ziren eremuetara ere**

tean. Ez da harritzekoa, hortaz, kate autonomikoak batzea bere nagusitasunari aurre egiteko.

Horretarako zutabegarrantzitsua izan zen umeen programazioa. TVEk apustu inportanteak egin zituen –David el Gnomo, Barrio Sesamo, Bioman, Los Caballeros del Zodiaco...–, baina bere aurkariak ez ziren atzean geratu, bitarteko ekonomiko urriagoak bazituzten ere. Argi dago FORTAren garaipen handiena Dragon Ball izan zela, baina ETBk igorritako marrazki bizidunen zerrendari begirada emanez gero, ezuste interesgarriak topatuko ditugu. Ezinezkoa da guztiak aipatzea, 500 kontratazio baino gehiago egin baitu euskal telebistak, baina zertzelada batzuk eman daitezke.

Hasteko, 1985etik aurrera ja-

danik gurasoak diren askoren buruetan dauden saioak ekarri zituzten Japoniatik: Dotakon, King Arthur, Captain Harlock... Ez ziren falta hasieratik Hanna Barbera faktoriako lanak: The Herculoids, The Flintstones, Yogi... eta garaiko produktak: Mr T, Robocop, Rambo, Conan edo Ewokak.

Lehenengo urte horietan eza-gutu genuen Akira Toriyamaren estreinako arte lana: Dr Slump. Arale robota zen protagonista –Dragoi Bolan agertu zen crossover lisergiko batean– eta askok oroitu dute gorotz arrosa bat zelako pertsonaietako bat. Komikiek ere bere tarte izan zuten: Tintin, Pottokiak, Asterix eta Obelix, Batman, Superman, Aquaman, Transformers, Gi Joe... edota Snorkelak ere. Ga-

# analisia

raiko beste apustua izan ziren Ninja Dortoka Gazteak.

## Kate pribatuen agerpena

Edonola ere, ikus-entzunezkoen hurbileko historian,

## Estatu espainiarreko hizkuntza gutxituetan -euskara, kataluniera eta galiziera- lortu zuen *Dragon Ballek* arrakasta

1990tik aurrera, egoera okertzen hasi zen. Liberalismoak ezarri zuen telebista emisioen esparrua ekimen pribatuei ireki behar zela. Hortaz, kate pribatuen agerpena gehitu zitzaion orduan telebista kate publikoen arteko lehiari. Tele5k, Antena3ek eta Canal Plusek irauli zuten ikus-entzunezkoen mundua Estatu Espainiarrean; dirutza zuten eta umeen marrazki bizidunen eskaintza islatu zen (Oliver y Benji, Chicho Terremoto, Cops, Ranma 1/2 eta zerrenda luzea).

Gauzak horrela, ETBk apustu irmoa mantendu zuen umeentzako programazioan. Animaziozko klasikoak kontratatu zituen: Isidoro, Popeye, Pantera arrosa, Doraemon, Tom eta Jerry, Lucky Luck, Garfield, Vicky Vikingoa, Inurri atomikoa... Gure kontzientzia ekologikoa pizten ere saiatu zen ETB Captain Planeti esker. 90. hamarkadako hasiera horietakoak ere badira ekoizpen arriskutsuagoak: Tales from the cryptkeeper, Cadillac and Dinosaurs, Ren eta Stimpy, Rugrats, Dinoriders eta superheroei lotutakoak: Spiderman, Fantastic Four edota Spiderwoman.

## Inbertsio gehiago

90. hamarkadako bigarren zatian ere inbertsioek jarraitu zuten telebista euskalduneari: Transformers, Sherlock Holmes, Street Fighter, X-Men, Tintin, Dungeons and Dragons...

Baina 2002. urtera arte ez zuten lortu zerbait deigarria: Shin Chan. Hori izan zen ETBk animazioari eman zion azken elementu freskagarria. Horren ondoren, kontratatutako ekoizpenek beritasunera jo ordez, nostalgiaen norabide atzerakoa hartu dute: Marco, Heidi, Calimero, Doraemon... Salbuespen gutxi: Totally Spies, Pokemon edo Shaun ardia.

Gaur egun, ETBren apustuak animazioaren esparruan indar ia guztia galdu du. Geroago animaziozko erabaki gutxi hartu ditu kateak eta Dragoi Bolaren arrakasta errepikatu nahian One Piece manga erosi zuen, emaitza bereziki onak erdietsi gabe.

Berez, une hauetan ETBk ez dauka estrategiarik euskara marrazki bizidunen artean txertatu

bizidunek nekez lortzen dute umeen arreta erakartzea. Horrez gain, badirudi marrazki bizidunak bikoiztera bideratutako orduak izugarri murriztu dituela EITBk -100 ordu urtera-.

Gainera, globalizazioak eta Internetek kontsumo ohiturak aldatu dituzte; umeen eskaintza zentratu diren kateak (ClanTV, Boing...) agertu dira eta Youtubek nagusitasun handia du.

Abiadura bizian aldatzen diren kontsumo ohituretan gero eta zailagoa da eragitea eta orain arteko estrategiak emaitzaren bat eman bazuen, ez dirudi etorkizunean horrela izango denik. Kanpotik eta handitik -hau da, ekoizpen atzeritarra bikoiztuta- esku hartzea agian ezinezkoa da XXI. mendean. Interneten dena topatu daiteke gaztelaraz edota inge-

lese. Ematen du, beraz, eragiteko aukera bakarra izan daitekeela tokitik eta txikitik lan egitea, ekoizpen propioekin, hain zuzen (apustu gutxi egin zituen ETBk, Fernando Amezketa edo Txirrita baino ez), eta euskal industria garatuta. Horretarako, bo-

rondate politikoa ezinbestekoa da eta hizkuntza komunitatea eraikitzeke ikuspegia. Hauda, jakitea zein balio transmititu nahi diren eta zein hizkuntzan, egokitzaren zaion estrategia garatu eta gauzatu ahal izateko: gidoia, animazioa, publizitatea...



## errenta 2018 ARABA ÁLAVA



Errenta eta Ondarea

■ Apirilaren 5etik ekainaren 25era

■ Informazio guztia: [araba.eus](http://araba.eus)



## Zure talde lana

Osasungintza, hezkuntza, gizarte eta kultura zerbitzuak... Horiek funtziona dezaten, talde lana behar da.

Zerga aitorpena egiten baduzu, zerbitzu publiko horiek eta behar dituzun ekipamenduak izatea bermatzen duzu. Hori da zure talde lana. Kontsultatu aurkezteko epeak eta lekuak [araba.eus](http://araba.eus)-en.



Dionisio Aldama, 20  
(Geltokiaren aurrean) AMURRIO  
Tel. 945 89 08 41

Asteartetik ostiralera: 9:30/19:00 (EGUERDIAN ERE ZABALIK) Larunbatetan: 9:00/14:00

ILEAPAINDEGI MISTOA · EDERTASUNA · LURRINDEGIA · OSAGARRIAK

**ORRAZKERA BEREZI ETA DOTOREAK**

· Estentsioak eta ileordeak  
· Ezkonberri, amabitxi eta gonbidatuentzako osagarri eta apaingarriak  
(loreak, brotxeak, kristalezko urkilak, lumak eta ilerako bitxiak)

**HITZORDUA HARTZEKO: 945 89 08 41**

Behin-betiko depilazioa · Sauna · Solariuma

Ushuaia Peluqueria & Estética/Perfumería

# jarraipen berezia

## Korrika zuzenean ikusteko aukera egongo da Aiaraldea.eus atarian

Testua  
Txabi Alvarado Bañares

Astebete baino ez da falta Korrika Aiaraldetik igaro dadin. Apirilaren 10ean Urduña, Amurrio, Aiara, Audio, Arakaldo eta Arrankudiaga-Zollo bisitatu ditu. Hurrengo egunean, aldiz, Artziniega zeharkatuko du.

Aiaraldea hedabideak jarraipen berezia egingo du bi egun horietan. Webgune berezia atondu du horretarako. Ibilbidearen xehetasunak, edizio zaharretako argazki eta bideoak eta beste hainbat eduki topatu daitezke bertan. Datozen egunetan hainbat artikulu, elkarrizketa eta iritzi zutabe plazaratuko dira Aiaraldea.eus atarian, datorren asteari begira motorrak berotzen hasteko.

Korrikak eskualdean barrena egingo duen bidearen zuzene-



Korrika zuzenean jarraitzeko aukera egongo da Aiaraldea.eus atarian. **Aiaraldea.eus**

ko jarraipena egingo du Aiaraldea hedabideak, hainbat formatu uztartuta: bideoak, argazkiak, testua... Korrika zuzenean jarrai-

tzeko aukera egongo da, furgonetatik egingo den zuzeneko streaming konexioaren bidez. Horrez gain, kilometro bat zozketatuko

du Aiaraldea Kooperatiba Elkartearen bazkideen artean. Irabazleek Korrikaren lekukoa eramateko aukera izango dute.



**TXANI RODRIGUEZ**  
IDAZLEA

### Korrika

Zergatik idazten dudan galdetzen didate maiz. Nire erantzuna txukuntzeko arrazoi ezberdinak aipatzen ditut, baina, egia esan, erantzun bakar bat dago: ez dakidala. Irrika bat da. Azaldu ezin dudan beharra. Korrika geure eskualdetik pasatzen denean, irrika berezi bat sentitzen dut ere bai: poza eta harrotasuna, aldi berean, erraetan dantzan baleude bezalaxe.

Arazionalizatu neza-keen sentsazio horren zioa: euskara indartzeko jai bat delako Korrika, nire haurtzaroaren gogorapen xamurrak dakartzkidalako, klaseko kideekin kilometroren bat betetzen nueneko garai urrun horren gogorapenak; baina, berriro ere, egia esateko, ez dakidala zergatik sentitzen dudan emozio hori aitortu beharko nuke. Argudio honek motza badirudi ere, zehaztu ezin diren arrazoiak, sendoenak dira, negoziatzeko direlako. Barnean daramaguna, azaldu ezin dugun hori, konbentzimendu osoz defendatuko dugu.

Beraz, korrika egin dezagun apiril honetan haurrek korrika egiten duten modura, anarkia puntu batekin, eta ilusioaz. Korrika egin dezagun azalpenik edo zuribiderik behar ez ditugulako. Nola azaldu bestela geure zerarengana heltzeko korrika egiten dugula, aldendu bagina bezalaxe. Haurrek korrika egiten duten modura egiten dugu korrika guk, ez dugu inora heldu behar, helmuga nork bere barnean daramalako.

elkarlan asesores



2018  
ERRENTA  
AITORPENNA

Autonomo zein partikularren  
errenta aitorpena aztertu, egin  
eta bidaltzen dugu.

Hitzordua eskatzeko:

[www.elkarlan.eu](http://www.elkarlan.eu)

Lamuza, 12 · LAUDIO  
Tel. 94 672 74 28

Foru Kalea, 2 · AMURRIO  
Tel. 945 39 33 51

Torre de Ugao, 12. UGAO  
Tel. 94 603 91 65

**KORRIKA**  
**Aiaraldean**  
JARRAIPEN BEREZIA



• Zuzenekoak • Bideoak  
• Argazkiak • Elkarrizketak ...



@aiaraldea



688 848 152



# Herriko plaza



# Endika

Zorionak Endika! Ondo pasa fortinitera jolasten zure 14. urtebetetzean!

## Senideak




# Uztai

Zorionak Txustiiiiiiiiiii!!! Oso  
ondo pasa zure urtebetetzean.  
Hurrengo sagardotegira arte ;)

## Lagunak

Idatzi zure mezua eta bidali  
argazkia [agurra@aiaraldea.eus](mailto:agurra@aiaraldea.eus)  
eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko  
dugu. Apirilaren 16an argitaratuko da  
hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

# Denborapasak

|                                                                                    |                   |                   |                   |                       |                  |                              |                           |
|------------------------------------------------------------------------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-----------------------|------------------|------------------------------|---------------------------|
|  | Lastima, pena     | ▼                 | Barazki mota      | ▼                     | Landare igokanak | ▼                            | Lurra irautzeko lanabesak |
|                                                                                    | Ortsuallako auzoa |                   | DEITURA           |                       | Koktel mota      |                              |                           |
|                                                                                    | ►                 |                   | ▼                 |                       | ▼                |                              | ▼                         |
|                                                                                    | Zuhaitz mota      | ►                 |                   |                       |                  |                              |                           |
| Lasaitasunez                                                                       | ►                 |                   |                   |                       |                  |                              |                           |
| Bekoiz-keria                                                                       | ▼                 | Solasa, elea      | ▼                 | Idi, hitz elkartzeean | ►                | Suari daria                  | ►                         |
| Eranskinak                                                                         |                   | IZENA             |                   | Gau, gero             |                  | Kontso-<br>nantea            |                           |
| ►                                                                                  |                   | ▼                 |                   | ▼                     |                  | ▼                            |                           |
| Su armetako kaka                                                                   | ►                 |                   |                   | Bokala                | ►                | Arkaren erdian               | ►                         |
| Nago                                                                               |                   |                   |                   | Moduak                |                  | Kontsonar-<br>te errepikatua | Suteak                    |
| ►                                                                                  |                   |                   | Neguko kirol      | ►                     | ▼                |                              | Sufrea                    |
|                                                                                    |                   |                   | Euskal sindikatua |                       |                  |                              | Oinarritzo edaria         |
| Izateko erak                                                                       | ►                 |                   | ▼                 |                       |                  | Bokal errepikatua            | ►                         |
| Sarrera edo irteera                                                                |                   |                   |                   |                       |                  | Irdioa                       | ▼                         |
| ►                                                                                  |                   | Behar             | ►                 |                       |                  | Iratzea, gara                | ►                         |
|                                                                                    |                   | Kontso-<br>nantea |                   |                       |                  | Kontso-<br>nantea            | ▼                         |
| Larruaza-<br>leko gainal-<br>de gogortuak                                          | ►                 | ▼                 |                   |                       |                  | ▼                            |                           |

❖ Arbitro laudioarra

## ERRAZA

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   |   | 2 | 6 | 4 |   |   | 7 | 8 |
| 8 |   |   |   |   |   |   |   |   |
|   | 5 | 6 |   | 8 |   |   | 4 | 2 |
|   | 2 |   | 5 | 3 |   | 4 |   | 7 |
|   | 4 |   | 8 |   | 9 | 6 | 1 | 3 |
|   |   | 3 |   | 7 | 4 | 5 | 2 |   |
|   | 7 | 9 | 4 | 5 |   |   |   | 6 |
|   |   |   | 3 | 9 | 2 | 7 | 5 | 1 |
|   | 3 |   | 7 | 6 | 1 | 8 | 9 | 4 |

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   | 5 | 7 |   |   |   |   | 4 |   |
|   |   | 3 |   |   | 2 |   | 7 | 5 |
| 2 | 4 |   |   |   |   |   | 3 |   |
|   | 9 |   | 6 |   |   |   | 2 | 7 |
|   |   |   |   | 9 | 8 | 5 | 6 |   |
| 5 |   | 6 | 7 |   |   |   |   | 8 |
|   | 7 | 1 |   |   | 4 |   |   | 6 |
| 9 |   |   |   |   |   |   |   |   |
| 8 | 2 |   | 3 |   | 5 |   |   |   |

## ZAILA

|   |  |   |   |   |   |   |   |   |
|---|--|---|---|---|---|---|---|---|
|   |  |   |   |   |   |   |   |   |
| 7 |  |   | 8 |   | 2 |   |   | 6 |
| 8 |  |   |   |   | 3 | 4 | 2 |   |
|   |  |   |   | 9 | 7 | 1 |   | 2 |
|   |  |   | 4 |   |   |   |   |   |
|   |  | 5 |   | 3 |   | 8 |   |   |
| 2 |  | 8 | 7 | 5 |   |   |   | 4 |
|   |  | 3 |   |   |   |   |   |   |
|   |  |   |   | 2 | 6 |   |   | 5 |

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   | 8 | 9 |   | 2 |   |   |   |   |
|   |   |   | 4 |   |   | 5 |   |   |
| 1 | 6 |   |   |   | 7 |   |   |   |
|   |   |   | 5 |   |   |   | 8 | 9 |
|   |   |   |   |   |   |   | 2 |   |
| 7 |   |   |   |   |   | 3 |   |   |
| 4 |   |   | 6 |   |   |   |   |   |
|   |   |   |   | 9 |   |   |   |   |

## DENBORAPASEN SOLUZIOAK



## Lan-eskaintzak

**Instalazio eta mantenu**  
**industrialeko teknikariak** AUDIO  
**Galdategi arduraduna** AUDIO  
**Pilates irakaslea** AUDIO  
**Tornularia** AUDIO  
**CNC Tornularia (Amurrio)**  
**Elektromekanikaria** AUDIO  
**Ingeles irakaslea** AUDIO  
**Administraria** AMURRIO  
**Aseguru komertziala** AMURRIO  
**Iturgina** AMURRIO  
**Gune berde eta naturalen**  
**mantenurako langilea** AMURRIO  
**Herri laguntzailea** AMURRIO

LAN-ESKAINZA GEHIAGO  
AIARALDEA.EUS ATARIAN

## Guardiako farmaziak

**Apirilak 3** A. FUERTES eta IBARROLA  
(errefortsua YARZA)  
**Apirilak 4** AIS eta PEREZ  
**Apirilak 5** RIVERA eta HERNANDEZ  
**Apirilak 6** C. FUERTES (errefortsua RIVERA)  
eta HERNANDEZ  
**Apirilak 7** C. FUERTES eta HERNANDEZ  
**Apirilak 8** SOLAUN eta PEREDA  
**Apirilak 9** MENOYO eta CACERES  
(errefortsua PEREZ)  
**Apirilak 10** EGUIA eta YARZA  
**Apirilak 11** C. FUERTES eta FERNANDEZ  
(errefortsua HERNANDEZ)  
**Apirilak 12** AIS eta IBARROLA (errefortsua  
PEREDA)  
**Apirilak 13** RIVERA (errefortsua AIS) eta  
IBARROLA  
**Apirilak 14** RIVERA eta IBARROLA  
(errefortsua PEREDA)  
**Apirilak 15** A. FUERTES eta PEREZ  
**Apirilak 16** SOLAUN eta HERNANDEZ

## Zozketa

## “Kolore anitzak” ipuin kontaketa musikatua



2  
lagunentzat  
sarrera  
bikoitza


Saioa apirilaren 12an izango da 17:00etan.  
Amurrio antzokia.

**Parte hartzeko** sartu [www.aiaraldea.eus](http://www.aiaraldea.eus) en  
**Zozketa data:** apirilak 11, 12:00etan

# Aiaraldea txiki

## Irudi engainariak

Zortzi zati  
hauetatik hiru  
irudi nagusitik  
hartuta daude eta  
gainerako bostak  
engainariak dira,  
hau da, antz handia  
izan arren, ez  
datoz bat irudi  
nagusiarekin.  
Identifika itzazu.



## Esaera zaharrak

Esaldi hauek bat etor litezke marrazkiak adierazten duenarekin, baina denak ez dira esaera zaharrak. Zehazki esanda, erdiak asmatuak dira. Bereiziko al dituzu?

1  
Martxoko eguzkia,  
txarren txarrena

2  
Apirilean ezin jakin  
noiz izango den ateri

3  
Maitasuna eta  
gorrotoa bezala,  
eguzkia eta  
euria, elkarren  
kontrario

4  
Apirila euritsu,  
urtea kakatsu

5  
Eguzkia eta euri,  
martxoko eguraldi

6  
Euriak ez daki eguzkia ahaltsuagoa dela

## Emaitzak




# Mozorro Festa

Inauterien aitzakian  
mozorro festa egin dute  
Pelloziri eta Maripurtzilen  
eskolan. Ea asmatzen  
duzun zein diren gure  
protagonistak.


- **Maripurtzilek** begiak erabat zabalik ditu eta, gezurra badirudi ere, geldik egoten saiatuko da, mozorroak hala eskatzen duelako. Makillajea behar izan du, eta orrazkera berezia.

- **Pelloziri** guztiz ezkutatuta dago bere mozorro-jantziaren barruan, baina hortzak eta begiak agerian ditu. Espaloietan sarritan topatzen dira horrelakoak.



### 3 zortziko

Hiru elementu hauek irudi nagusian aurkituko dituzun pertsonaien kopiak dira, baina ez dira berdin-berdinak. Bakoitzari zortzina alde aurkitu behar dizkiozu.



# Kontra

## Mundutik Aiaraldera

Tom Bastin

### Matt Doughty

JAIOTERRIA  
INGALATERRA (1980)

BIZILEKUA  
**DUELA SEI URTE IRITSI ZEN  
EUSKAL HERRIRA. GAUR EGUN  
URDUÑAN BIZI DA**



## “Euskara mundura zabaltzeko oso ekimen berezia iruditzen zait Korrika, ez dut inoiz halakorik ikusi”

Korrikan parte hartu izan duzu, ez?

Bai, Dulantzín parte hartu nuen lehenbiziko aldiz, bertan bizi izan bainaiz duela oso gutxira arte. Orain Urduñan bizi naiz. Hiriko ingeles akademia batean egiten dut lan.

Zer nolako ekimena iruditu zitzaizun?

Ekimen interesgarria iruditu zitzaidan, oso pozik hartu nuen parte. Euskara sustatu eta mundura zabaltzeko oso egitasmo berezia iruditu zitzaidan, ez dut inoiz horrelakorik ikusi. Oso deigarria da zenbat motatako pertsonak parte hartzen duten ikustea: gazteak, haurrak, nagusiak... eta beste jatorri batzuetakoak, ni bezala.

Oso denbora gutxi daramazu Urduñan bizitzen. Nola iritsi zara hirira?

2013an etorri nintzen Euskal Herrira bizitzera, nire neskalguna hemengo delako. Dulantzira joan ginen bizitzera, eta duela bizpahiru hilabete mugitu ginen Urduñara.

Euskara ikasteari ere ekin diozu. Zer dela eta?

Bai, duela bostpasei urte hasi nintzen. Euskal Herrira bizitzera etortzeak bultzatu ninduen hizkuntza ikastera. Parte hartzeko eta jendea ulertzeko go-goak nituen. Lagun euskaldun asko ditut. Horregatik, gizartean integratzeko tresna bat da euskara. Hizkuntza kultura da, azken finean. Gaztelera ikas-

tera mugatzen bazara ez duzu hemengo kultura guztira helterik.

Nolakoa izan da ikasketa prozesua?

Ondo, baina zaila izan da (barreak). Gustuko dut euskara ikastea, ez dut uste esaten dutena bezain zaila denik. Kanean praktikatzea da zailena, gaztelara jo dezakezulako beti, eta horrek aurrera egitea galarazten dizu.

Orduan ezin izan zara hizkuntzan behar bezala murgildu.

Non bizi izan naizen ere eragina du, noski. Gaztelera gutxiago hitz egiten den tokietan bizi izan banintz (Baztanen, adibi-

dez) derrigortuago egongo nintzateke euskara praktikatzera. Baina Urduña eta Dulantziko kaleetan ez da euskara entzuten. Euskaraz hitz egiteko ahalagin handiagoa egin behar duzu orduan.

Ingeleseko irakaslea zara. Zer berezitasun sumatu dituzu euskararen beste hizkuntzekiko?

Nik alemana ikasi nuen institutuan, eta hizkuntza horrek euskararekiko antzekotasun ugari dituela uste dut: Aditzak amaieran doaz, adibidez.

Hori gustatu zait, beste hizkuntza baten erreferentzia izan dudalako. Gustuko dut gramatikarekin jolastea. Hitz egitea da zailena niretzat.

### INGALATERRA



#### DESKRIBAPENA

Erresuma Batua osatzen du Gales, Eskozia eta Ipar Irlandarekin batera, eta lauretatik handiena da, lurrazal zein biztanle kopuruari dagokionez. Antolaketa konplexua du, lau banaketa administratibo baititu: eskualdeak, konderriak, barrutiak eta parrokiak.

#### AZALERA

130.279 kilometro koadro.

#### BIZTANLEAK

54,7 milioi biztanle.

#### HIZKUNTZA

Ingelesa da hizkuntza ofiziala, baina kornubiera ere aitortua dago.

#### Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte  
Tirada: 10.000 ale.  
Maiztasuna: Hamabostekaria  
Lege gordailua: BI-1230-2013  
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus  
agenda@aiaraldea.eus  
agurrak@aiaraldea.eus  
Publizitatea: publizitatea@komunika.eus  
Tlfnoa: 688 62 53 94  
Helbidea: Nerbioi Kalea 12, behea. Audio. Araba. 01400  
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00  
Web-gunea: www.aiaraldea.eus  
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

#### ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:

Xabier Ugalde Gulas, Jabi Asurmendi Sainz, Unai Llano Anda, Eider Solatxi, Alberto Martínez Gutierrez-Barquin, Ali Orue Del Valle, Garrastatxu Landaluze Okeranza, Genma Corbella Eguiluz, Unai Vicente Bastera, Estibaliz Bideguren Otaola, Aitor Fernandez de Pinedo, Endika Arribas Gulas, Eunete Molinuevo Olabarria eta Koldo Rodriguez

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

